

DIBULGAZIOKO KOADERNOA 4

LESBIANISMOAREN HISTORIA MENDEBALDEAN

Egilea: Ana Ureta

2 Argitalpen -2007ko Maiatza

Inskripzio zbkia: BI-2790/03

Koordinatzaile: Sexu eta Askatasunari buruzko ikerketa eta dokumentazio zentroa
ALDARTE

IKASLAN LESBIKOAK

Lesbianismoak Mendebaldeko gure kulturaren baitan izan duen historia aztertzea, edo besterik gabe kontatzea, ez da gauza samurra. Hortaz, puzzlearen atal egokiak aurkitzeko zailtasuna dugu emakumeak maite izan dituzten emakumeen historia aztertzeko arazorik nagusia.

Liburuxka honen bitartez sexualitate lesbikoak antzinetatik XX. mendearen lehen erdialde arte Mendebaldean izan duen tratamendua hurbilarazi nahi dizugu.

Historia idazteko, ikertu nahi dugun gaia edozein dela ere, gertakari historiko eta iturrien menpe egongo gara. Gertakariak ezagutzen ez baditugu zaila izango da horien historia egitea, eta hori gabe zientzia fikzioaren alorrean geundeke.

Lesbianismoaren kasuan, agiriak argitaratu, artxibatu eta zentralizatzeko espazioen gabezia historikoak izugarri zailtzen du haren historia erregistratzeak eta, belaunaldiz belaunaldiko lotura ezaren ondorioz, ahanzturara bazterturiko ahozko tradizioa bilakatu da; badirudi lesbiana gazteenak beti ari direla espazio berriak sortzen, ordurarte ezagutu gabeko munduak asmatzen, zerotik hasten direla baina, izan ere, lesbiana asko ibili dira lehenago bide berdintsuetatik.

Horrela bada, lesbianen historia berrartikulatzeko lana ez da lan historiko, antropologiko, soziologiko edo politiko hutsa, ez bada arkeologikoa. Geure historia ulertzen lagunduko diguten ahozko kontakizunak eta gainerako iturri guztiak erreskatatu behar ditugu ahanzturatik, eta hori egiteke dagoen lana da.

Sexismoaren ondorioz, lesbianismoa gizonezkoen homosexualitatea baino gutxiago ulertu izan da eta, ondorioz, gutxiago aztertu da; hori, nolana ere, emakume guztien eta gutxiengo sexual ororen egoera berbera da. Alabaina, esan behar da lesbianek bidea eman dutela, dela zentsura sozialagatik, dela utzikeriagatik, ezagunagoak izan daitezen gizonezko heterosexualek idatzitakoaren bitartez –izaki kliniko, zantar, morboso gisa aztertu dituztenak- lesbianek eurek beren buruaz kontatu dutenagatik baino.

Lesbianek beren buruez idazten ez duten bitartean historiaurrea bizitzen segituko dute. Erronka handia da hori.

Estatu Espainolean garai ona bizi dute egun azterlan gay-lesbianoek, eta hori ez litzateke horrela izango hainbat emakumeren esfortzurik gabe, hain zuzen ere 1980ko hamarkadako mugimendu feminista eta lesbikoaren baitan herrialde anglosaxoniarretan lesbianismoaren gainean sortzen ari ziren eztabaidak aztertu, haietaz idatzi eta haiek ezagutzen saiatu zirenak eta, itzulpenen bitartez, gugana hurbildu zituztenak. Emakume

horiek gai izan ziren, jardunaldi, topaketa, argitalpen, koordinadora eta abarren bitartez eztabaida sakon eta gogoeta emankorra bultzatzeko mugimendu feminista eta lesbianoaren baitan. Madrileko Colectivo de Feministas Lesbianasek –Empar Pineda eta Montse Olivan tarteko-, aukera eman zuen, estatuko gainerako taldeekin batera, lesbianek beraiek lehen aldiz jendaurrean kolektibo gisa hitz egin zezaten lesbianismoaz.

Alabaina, oraindik ez dago estatuko inongo unibertsitatetan ikasketa lesbikoetako sailik.

Emakumezkoen homosexualitatea gizonezkoen esperientzia edo azterlanen ikuspuntutik aztertu eta ikertu izan da ia beti, garrantzi berezia emanaz harreman sexualak finkatzeko eta sexualitatera hurbiltzeko moduari, adierazpen sexualari nahiz harremanen iraupenari. Ondorioz, gizonezkoen eruedetatik oso gutxi aldentzen den gutxiengo baten esperientzia gisa definitu izan da lesbianismoa. Egun ordea, froga ugari dago esperientzia lesbikoen eta gizonezko homosexualen artean desberdintasunak badaudela ziurtatzeko, eta horrela baieztatzen dute lesbianek beraiek: ez dira gizon gayen emakumezko erreprodukzio hutsak. Emakumeen arteko harremanez Estatu Batuetan duela gutxi egindako ikerlanek emakumeen arteko loturen indarra eta sendotasuna azpimarratu dute, garbi utziz harreman sexualaren garrantzia ez dela beti funtsezkoa; horrek nahikoa urruntzen ditu gayentzat definituriko eruedetatik.

Nortasun lesbikoa gizonezkoen nortasun homosexuala baino beranduago sortu zen; haren garapen azpikulturala motelagoa izan da eta harreman moduak beraiek desberdinak dira.

Historiak ez du lesbianismo kasu askorik kontatu, eta ez horrelakorik egon ez delako, ez bada mendebaldeko pentsamenduak, moralak, erlijioen mugek, garaiko uste eta beldurrek oroimen kolektibotik ezabatu dutelako denboran zehar oso tratamendu desberdinak izan dituen orientazio sexualari buruz egon litekeen ezagutza oro.

Kontuan hartu behar dugu zerbait ukatu, ezkutatu eta isiltzea hura kontrolatzeko modua dela, beraz, iragana berreskuratu beharra dago oraina ulertzeko eta izatea bera berreskuratuzeko.

Joera badago pentsatzeko iraganeko emakume garrantzitsu guztiak heterosexualak izan zirela eta isildu egiten da haien biografietan maitasun harremanak izan zituztela emakumeekin; horrela gertatzen da, esaterako, XX. mende hasieran Estatu Batuetako Gizarte Lanaren Konferentzia Nazionalako lehendakari izan zen lehen emakumezkoarekin, **Jane Addamsekin** (1860-1935), edo **Emily Dickinson** (1830-1886) idazlearekin, isilpean gorde baita emakumeekin harremanak zituela, muxurdin bitxi eta sexugabea bailitzan aurkeztuz; **Eleanor Roosevletek**, 1930eko hamarkadan Estatu Batuetako lehen dama izandakoak, hainbat emakumezko lagun minekin trukaturiko gutun pribatuak ezkutatu edo desagertarazi egin dira. Isiltasun bera aurkitzen dugu **Susan B. Anthony** (1829-1906) sufragistak eta **Elizabeth Cady Stanton** haren lagunak 50 urtetan zehar izandako harremanari buruzko aipamenetan, XIX. mendeko Estatu Batuetako bikoterik handienetakoa osotu zuten arren. Edo **Ruth Benedict** (1887-1948) antropologoaren kasuan. Luzea da zerrenda.

ZER DAKIGU EMAKUMEAK MAITE IZAN DITUZTEN EMAKUMEEZ? SAFORENGANDIK SUEDEIAKO KRISTINARENGANA

Lesbianei egotzitako lehen idazkiak Kristoren aurreko laugarren milurtekokoak dira, Babilonian sortuak, sumerrera; idazki horiek argi azaltzen dute emakume batek beste batenganako agertzen duen maitasuna. Antzaenez, garai hartan ohikoa zen jokaera erotiko/amodiozko hori eta ez zen inola ere zigortzen.

Lesbos irlako **Safo** poeta da, dudarik gabe, emakume lesbianarik ezagunena eta haien aitzindaria. Kristo aurreko 630-560 urte inguruan bizi izan zen. Oso mirestua zen greziarren artean haren gizatasunagatik eta dohain liriko eta pentsamendukoengatik. Poeta samur eta lirikoa izan zen eta poesiarako metrika modu bat utzi zigun.

Egun neskontzako ikastetxe-barnetegi izenez ezagutzen duguna zuzendu zuen Safok, garai hartan horrelako asko baitzegoen. Musen Zerbitzarien Etxea zuen izena, izaera erlijiosoak zuen eta besteak beste dantza, musika eta poesia ikasten zuten han neskek. Beste idazle batzuen ustez neskek ezkontzarako prestatzea zuen helburu ikastetxeak. Saforen poesiak ikasleekin eta ikasleek euren artean izandako maitasun harreman sutsuak agertzen ditu.

Safo ezkontuta zegoen eta alaba bat zuen, garai hartan aukera baitzegoen bai Grezian nola Erroman harreman heterosexualak eta lesbikoak batera eramateko inolako eskandalu edo zentsurarik gabe.

Safok eragin handia izan du ondorengo 2500 urteetan eta, adibide gisa, konta dezakegu XVIII. mendean, Frantziako Iraultzaren garaian, *safistak* izeneko talde baten gidari zelako salaketa egin ziotela **Maria Antonieta** erreginari.

Lesbianismoa gaur ulertzen dugun moduan XX. menderarte azalduko ez bazen ere, bi mila urte baino gehiagoko historiaren hasiera markatzen du Safok emakumeen arteko maitasun-harremanetan.

Harkaitz batetik behera bere burua itsasora boteaz eman zion amaiera Safok bere bizitzari, batzuen ustez Faon gizon gazte isekariarekiko maitasun eroak bultzaturik, baina sinesgarriagoa da, beste batzuen iritziz, emakume baten maitasunagatik suizidatu izana.

Argigarri gerta daiteke aipatzea 1073. urtean Eliza Katolikoak Lesboseko Saforen poemak kopia guztiak erretzeko agindua eman zuela Erroman eta Konstantinoplan, eta haien heren bat baino ezin izan da berrosatu aintzinako pergamuez baliaturik.

Erromatarren garaian jada, Kristo aurreko IV. mendean, emakume homosexualentzako bainu publikoak zeudela jaso zuen beste batzuen artean Plutarko historialariak bere lanetan, emakume ezkonduak ziren bezero guztiak eta Erroman oso estimatuak ziren bainuak hartzen zituzten artean emakumezko esklabu *felator*-ek asebetetzen zituzten sexualki. Bai Grezian bai Erroman guztiz arauturik eta finkaturik zegoen prostituzioa. Ez dakigu inperioaren garaiko kultura eta ohitura erromatarrak hedatzearekin batera esklabu *felator*-en instituzio hori ere Mediterraneo aldeko beste herrialde batzuetan finkatuko ote zen, baina ez litzateke zentzugabekeria izango horrela gertatu zela pentsatzea.

Badakigu, halaber, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak bazeudela, Boswell-ek "Antzekotasunaren ezkontzak" liburuan zehatz mehatz azaltzen dituenak. Era horretako ezkontzak emakumeen artean ere egiten ziren, araututa zeuden eta ezkontza heterosexualen antzeko kontratu baten bitartez burutzen ziren.

Kristautasunak, alabaina, stez balorerik ez zuten bi gizarteren, grekoa eta erromatarra, ondarea ezereztuko zuen. Biblian badaude gizonezkoen homosexualitateari buruzko aipamen argiak, ez hainbeste emakumezkoen kasuan, emakumeen arteko harremanak agertzen direlarik “naturaz kontrakoak” hitzak erabiltzen baitira, nahiz eta egun eztabaida sutsua egon hitz horiei ematen zaien interpretazioaz. Dena dela, Biblian lesbianismoaz egiten diren aipamenak interpretazioen arabekoak badira ere, tradizioaletatik hasita berritzaileenetara, argi uzten du horrek ezagunak zirela emakumezkoen arteko harremanak..

Europako Erdi Aroan, V-XIV. mendeak, oso zaila da emakumeen arteko harreman erotiko-maitasunezkoen buruzko kasu eta datu historikoak aurkitzea. Garai horretako mendebaldeko lesbianismoaren historia berreraikitzeo iturri historiko nagusienak elizako artxiboak (predikuak, sermoiak, entziklikak, kontzilioak, dotrinak....) eta artxibo juridikoak (prozedura judizialak, salaketak, epaiak...) dira.

Europarrek uste zuten ezerk ezin zuela piztu emakume batengan beste batenganako desio sexualik. Ondorioz, ezikusi egiten zitzairen emakumeen arteko harreman maitasunezko eta sexualei bai zuzenbidean, medikuntzan nola iritzi publikoan.

Erdi Aroan eta Aro Modernoaren hasieretan auzitegi eklesiastiko nahiz laikoek epaitutako gizonezkoen homosexualitate kasu ugarien artean ez da ia bat ere aipatzen emakumezkoen arteko harreman sexualen ingururik. Askotan esan dugun bezala, bitxia da izan, gari hartako kontzientziaz emakumezkoen sexualitatearen alor esanguratsu bat ezabatu izana, batez ere jendeak bazuelako haren berri. **Hamar mendetako epean lesbianismoari buruzko dozena bat aipamen isolatu baino ez da bildu literaturan, sermoi herrikoietan eta karteletako eskuliburuetan.**

Garai hartako zenbait agintari eklesiastiko, sexualitate lesbikoa egon bazegoela jakinik, monasterioetako komunitateetan hura eragozten saiatu ziren. Serorak, gehienetan, klase ertaineko alabak edo patrizioak izan ohi ziren, batere bokazio erlijiosorik izaten ez zutenak eta komentueta biltzen zirenak ezkontzaz gain hura zelako bizitzan aukera zezaketen bide bakarra.

Honela ohartarazten zion San Agustinek arreba mojari: “Zuen artean sentitzen duzuen maitasunak izpirituzkoa behar du eta ez haragizkoa”. Karlomagnok, VIII. mendean, maitasun kantak sortzea debekatu zien serorei; alabaina, Erdi Aro osoan oso zabaldu egon ziren Europan “Frantziako Mariaren Lais” deitutakoak. Garai horretan ezagutzen diren emakume biren arteko bertso agiriko bakarrak, Bavariako monasterio bateko serora birenak dira:

“Eman zenizkidan musuak gogoratzen ditudanean
eta zein hitz goxo esanda
laxandu zenituen nire bular txikiak,
hiltzea nahiko nuke
ezin baitzaitut ikusi”

Tentaldiak uxatzeko Paris (1212) eta Ruan-eko Kontzilioek (1214) debekatu egin zieten serorei elkarrekin lo egitea eta haien logeletan lanpara bat gau osoan pizturik egon zedin agindu zuten. Monasterioetako aginduek debekatu egiten zieten mojei besteen geletan sartzea eta ezin zuten atea giltzez itxi, era berean komentuaren barruan laguntasun-lotura bereziak saihesteko gomendioa egiten zieten. Ondorengo mendeetan,

XVI., XVII. eta XVIII.ean, behin eta berriro agertzen dira garaiko literaturan seroren arteko harreman sexualak, batez ere herrialde protestanteetan eta inguru katolikoetan. Badira komentu barruko mojen arteko harreman sexualak jasotzen dituzten eleberri laburrak eta poemak.

Famatua da **Sor Benedetta Carliniren** kasua (1619-1623), Italiako herri txiki bateko Jainkoaren Amaren Komentuko abadesa zena. Haren ustezko mirari eta ikuskizunei buruzko txosten zehatza dago eta xehetasun handiz azaltzen dira komentu bereko beste serora batekin izandako harreman sexualak.

Foucoult-ek dionez, bitxia da oso sexualitate lesbianari buruzko aipamen gehiago jasotzea mundu erlijiosoan sekularrean baino. Horren arrazoietakoa bat da, dudarik gabe, Europan, Erdi Aroan, komentu eta monasterioetara murrizturik egotea kultura eta heziketa (idazten eta irakurtzen ikastea, ...). Herritar gehien-gehienak analfabetoak ziren eta beraz ezinezkoa da klaserik babesgabekoenen ohitura sexualak ezagutzea ez bada garaiko kronisten bitartez.

Beste arrazoietakoa bat da Eliza Katolikoak bere burua izendatu zuela Erdi Aroan eta Aro Modernoan moral katolikoaren zaintzaile, eta beraz funtzio arauemaile eta epaiketakoa garatu ahal izateko herriaren praktika sexualak ezagutu behar zituzten, eta ezagutzeko galdetu egin behar zuten; tresna ezin hobea zuten zeregin horretarako: aitortza.

Apaiak, monjeak... giza talde guztietako bizitza sexualaren ezagutzaile handiak dira, beraz, baliatu beharreko iturri historikoa dira artxibo eklesiastikoak.

Elizaz aparteko mundu sekularrean, noizean behineko aipamenak egiten zaizkio sexualitate lesbikoari; alabaina, homosexualitatearen kontrako lege zibilak oso esplizituak izan arren, ez da gauza bera gertatzen lesbianismoarekin. Europan XV. eta XVI. mendean epaitutako egintzetatik oso gutxi dira emakumeei dagozkionak: badira lau epaiketa Frantzian, bi Alemanian, bat Suitzan, bat Herbeheretan eta bi Italian. Gizonezko kasuak milaka azaltzen dira. Lesbianismoa, gehienetan, isiltzen zen kontua zen.

Berpizkundeak, XV. mendean, antzinate klasikoaren ideiekiko interesa berpiztu zuen eta maitasun platonikoaren gaiak indar berria hartu zuen. Eta laguntasunezko maitasun horrek alde genitala baztertze duen arren, guztiz erotikoa da erabiltzen duen hizkera.

Honela idatzi zion **Madame de La Fayette-k Madame Sevigne-ri** 1691ean: “Sinets iezadazu, zeu zara zinez gehien maitatu izan dudana pertsona”. Garai bertsuan, Mexikon, honela idatzi zion **Sor Juana Ines de la Cruz-ek** Erreginaordeari:

“Hortaz, nire esaten
dizudanean, ez dut nahi
neurea zarela pentsa dezaten,
zurea izatea baino ez dut nahi”

Oso eragin handia sortu behar izan zion Sor Juanak Erreginaordeari zeren, handik gutxira errege-jauregian onartu baitzuten “erreginarode andrearen oso maitea” tituluarekin, erreginaordeak ezin baitzuen Juana Inesik gabe bizi. Ugariak dira sor Juanaren markesarekiko maitasunaren agerpen agerikoak, nahiz kiritiko asko azpimarratu “Lisi maitea” edo “Laura zoragarria” bezalako hitzak idazten dizkionean lizentzia poetikoa baino ez dela.

Emakumeen arteko adiskidetasun erromantikoa asko hedatu zen hurrengo hirurehun urteetan. Garai eta kultura desberdinetako emakume idazleek, esaterako

Madame de Staël-ek, Mary Wollstocraft-ek, Flora Tristan-ek, Carolina de Gunderot-ek.... indarra eta pizgarria aurkitu zuten adiskidetasun horietan.

Esan beharra dago Aro Modernoan ez dela ezer espliziturik esaten literatura profanoan emakumeen arteko harreman sexualei buruz XVII. mendearen erdira arte.

Gizon eta emakumeen arteko maltzurkeria sexual guztiak agertzeko batere erreparorik ez zuten Dantek eta Boccacciok ez zuten kontuan hartzen halako aldaera sexuala egon zitekeenik; Ariostok -emakumeen arteko sentimendu erotikoak deskribatzera gehien hurbildu zena- aukera hori baztertuko zuen azkenean “Orlando sumindua” bere lanean. Harreman lesbikoen gaia landu zuten idazle urrien artean koka dezakegun Agnolo Firentzuola XVI. mendeko idazle italiarrak, emakumezko pertsonaiak eztabaidan jarri ondoren emakume bat maite izatearen komenentziaz, ondorioa ateratzen du ez dela posible era horretako maitasuna aukeratzea zeren, naturaren aginduz, gizonezkoen edertasunak desio handiagoa pizten baitu emakume batengan beste emakume batek sor dezakeena baino. Emakumeen arteko maitasun harremanak onartzeko joera handiagoez, XVI. mende bukaerako Frantziako gortesauen bitxikeria sexualen iruzkingile Brântomek zera ohartarazi zuen: **“azken garaian ohiko kontua bilakatu dira emakumeen arteko harreman sexualak, aipatuko ez dudan nobleziako dama batek Italiatik ekarritako modari segituz”**.

Frantziako erregina **Mediciko Katalinaz** ari zen, dudarik gabe, bai eta haren exenpluari segitzen zioten emakumeez, “Batailoi hegalaria” izenez ezagunak. Haietako gazte edota alargun batzuek nahiago zuten euren artean maitatu eta ez, Brântomek esaten zuen bezala: “gizonezkoei beren burua eskaini eta horrela haurdun gelditu eta ohorea galdu”.

Garai horretan ezagunak dira, halaber, **Joana Ark-ekoa** (Orleanseko dama), **Katalina Erauso** (moja alfereza izenarekin ezagutua, inoiz abiturik hartu ez zuen arren) eta **Suediako Kristina** erregina, 1671ean abdikatzea nahiago izan zuena ezkontzea baino. Esan daiteke haiek denak, gizonezko jantzien azpian ezkutaturik eta gizonezkoen rolak bereganatuz, emakumeak maite izan zituzten emakumeak izan zirela, nahiz eta ustez birjinak izaten segitu zuten. Hiru emakume horiei buruz idatzitako saihoek haien irudia hurbiltzeaz gain bidea ematen digute ulertzeko nola bizi izan zuten euren originaltasun sexuala.

Arrazoi asko aurki ditzakegu azaltzeko zergatik ez dagoen garaiko literaturan emakumeen arteko sexualitatearen aipamenik eta zeintzuk ziren hainbat idazle eta pentsalarik hura guztiz baztertzeko erabiltzen zituzten argudioak. Ustez, emakumeen arteko harremanek, maiz gertatu edo ez, helburu bakarra lukete: benetako sexua goraiatu eta laudatzea, hau da, gizon eta emakumeen artekoa. Emakumeen arteko harremanak ikasketa gisa ulertzen ziren, geroagoko harreman erotiko gorenerako eskola gisa. Brântomek hutsal eta azalezkotzat jotzen ditu emakumeen arteko plazerrak, eta beraz, horretan diharduten emakumezkoei barkatu egin behar zaiela uste du. Harentzat, garaiko gizon askorentzat bezala, emakumeen arteko maitasuna ez zen kontu serioa.

Oso zabaldurik zegoen emakumeek barrabilak zituztelako ustea -geroago obario esango zieten-: hazia sortzen omen zuten, baina hazi hotzagoa, eragin gutxiagokoa omen zen, eta alor askotan gizonezkoena baino garrantzi txikiagoa zuen giza sexualitatean. Pertsonen biologia horren gaizki ezagutzen zuen gizarte batean, non sortze prozesuan gizonen hazia baloratzen baitzen gainerako guztiaren gainetik,

gizonezkoen hazia xahutzea Jainkoaren eta naturaren legeen kontrako hoben handiagoa zen emakumezkoen sortze organoen hazia gaizki erabiltzea baino. Beraz, emakumezkoen arteko harremanak ez ziren hain usteltzat jotzen eta zigor txikiagoa merezi zuten. Tarsoko Teodorok hiru urteko penitentzia ezartzen du “beste emakume batekin edo bere buruarekin bizioan aritzen den emakumearentzat”, ordea, hamar urtekoa ezartzen zuen gizonen homosexualitaterako. Garaiko legedian masturbazioarekin parekatzen zen lesbianismoa, gizonezkoen homosexualitatea ordea, delitu larriagoa zen. Nolanahi ere, sexualitate lesbikoa irain ainagotzat hartzeko joera ez zen erabatekoa, Frantziako zenbait lege-estatututan heriotza zigorraz punitzen baitzen.

Sexualitate lesbikoa egon bazegoela sinesten ez zen neurrian, lesbianak ere ez ziren existitzen. **Horren guztiaren ondorioz, bai garai hartan bai gerora ere, errepresio txikiagoa jasan zuten harreman lesbikoek gizonezkoen homosexualitateak baino, azken hori zigortuagoa eta zapalduagoa izan baitzen. Alabaina, erabakiorra gertatuko da hori XIX. eta XX. mendeetan nortasunak sortzeko erritmoetan.** Gizonezko homosexualiek pairatutako errepresio handiagoak eragin erabatekoa izan zuen Mendebaldean nortasun homosexual indartsua sortzeko, nortasun lesbikoa baino askoz lehenago eratuz gayen azpikultura.

Lesbiana hitza XVI. mendean agertu zen lehen aldiz Brantômen lan batean, emakumeen arteko maitasunezko poema bilduma batean alegia, “Lesbianak” izenburua jarri baitzion Lesboseko Saforen erreferentzia argia eginez. Hizkera eta kontzeptu zehatzik ezean, emakumeek ustez egiten zutena izendatzeko hitz zerrenda luzea erabili izan zen: elkar masturbazioa, kutsadura, larru jotzea, elkarren bizioa, koittoa, kopulazioa... eta gauza izugarri horiek egiten zituztenei nolabaiteko izena emateko *fricatriz* esaten zitzaien, hau da, elkarren kontra igurtzitzen ziren emakumeak edo, *tribadista*, ekintza beraren grekerazko ordezkoa.

Nolanahi ere, XVII-XVIII. mendeak arte, Iraultza Zientifikoaren abaroan, ez zen kategoria edo kontzeptu zehatzik sortu emakumeekin harreman erotikoa zituzten emakumeentzat. Ordurarte, eta sinestea zaila egiten bazaigu ere, ez zegoen ez homosexualik, ez lesbianarik, ez heterosexualik egun ezagutzen dugun modura. **Kontzeptu horiek oso berriak dira eta pertsona haiek guztiak tipifikatu, sailkatu eta karakterizatzeko interes zientifiko eta enpirikoak sortutakoak dira, azken finean, XIV. mendea ondo aurreratu arte Mendebaldean ez gorrotorik ez izurik sortu ez zuten joera jakin batzuk estigmatizatu eta zapaltzeko.** Garai hori baino lehenago, egon bazeuden sexu bereko pertsonekin harreman sexualak zituzten pertsonak, baina horrek ez zien aparteko karakterizaziorik eransten. Zentzu horretan, esan dezakegu **Erdi Aroko eta Aro Modernoko kristaudentzat kezagarria zena, bereziki Mediterraneo aldean, ez zela adulterioa zein sexu pertsonarekin burutzen zen, ez bada adulterioa bera.** Mendebaldeko tradizioan sexu bereko bikoteak inolaz ere aberranteak ez ziren modu berean, ezkontzak ere ez zuen aldez aurretik suposatzen ar eta emearen artekoa izan behar zuenik.

LESBIANISMOAREN PATOLOGIZAZIOA: Medikuntza eta sexologia.

XIX. mendeko azken hamarkadatan jakintzagai berri bat plazaratu zen, *sexologia*, desioaren zientzia sortzeko helburuarekin. Sexua modu zientifikoan lantzeko erronka ezarri zieten sexologiaren sortzaileek beren buruei. Lehen sexologo horien lanak lorratz sakonak utzi ditu egun erabiltzen ditugun sexuaren gaineko jarrera eta pentsamoldean.

XIX. mendeko sexologiaren idazlanek, besteak beste, patologia sexualak sailkatu eta definitzeko esfortzu eskerga azaltzen zuten eta, horrela, ustez “anormalak” ziren bulkada sexualen azalpen zehatzak eta izendapen sorta ugari agertu ziren. Krafft-Ebin-en *Psicopatía Sexualis* lana mugarrira izango da horretan, makurkerien katalogo oso bat aurkezten baitu, alderantzaketa sexualetik hasita zoofiliaraino. Urofilia, fetitxismoa, exhibizionismoa, sadomasokismoa eta beste asko, sailkatzeko mania horren ondorioz agertu ziren lehen aldiz jendaurrera. Lesbianismoa ere sexualitate gaiztoak deitutakoen sailkatze kliniko horren adibide da.

Zenbait historialari lesbiana eta feministek azaldutakoaren arabera, XIX. mende bukaera arte ez zen sexologiaren sailkapenetan (lesbiana maskulinizatua) oinarritutako nortasun lesbiana berezirik garatu. Frogatu egin dute, lehenago esan dugun bezala, horren aurretik maiz gertatzen zirela Britainia Handiko eta Estatu Batuetako klase ertaineko emakumeen artean, bai ezkonduak zein ezkongabeak, adiskidetasun grinatsuak, erromantikoak, askotan iraupen luzekoak, maitasun agerpen etengabe eta nabarmenak baztertzeko ez zituztenak, behin baino gehiagotan ohea bizitza osoan konpartituz, eta ez zirela apartekotzat edo susmagarritzat jotzen.

XIX. mendean zehar, emakumeak maitatu zituzten emakumeen artean izan ziren batzuk sexologiak geroago emango zuen ereduari lotu zitzaizkionak, gizon jantziak erabiltzera helduko zirenak.

Horrek guztiak, alabaina, ez omen zuen eraginik izan emakumeek sexu bereko pertsonetara agertzen zuten maitasunaren onespenez sozialean. Ez dirudi beste emakumeengandik desberdin ikusten zutenik euren burua, ez eta ezaugarri bereziak zituen giza talde bateko partaide sentitzen zirenik, hau da, ez zuten desberdintasunaren kontzientzia. **Sexualki desberdin izateko ideia edo sentimendu hori sexologiaren gorakadarekin hedatu zen.** Horregatik “lesbiana” kategoria, hitza, talde jakin bat izendatu eta definitzeko, nahikoa berria da eta XIX. mendea baino lehenago ez zen erabilera arruntekoa.

XIX. mendean, gaixotasunaren ezagutzaz gain normalaren eta patologikoaren arteko bereizketa arauak ezagutzea ere egotzi zitzaien medikuntzari eta sexologiari (aurreko jakintzagaiarekin oso lotua). Orduan bilakatuko da, ez lehenago, lesbianismoa gaixotasun.

XIX. mendearen bukaeran, Havelock Ellisek honela definitu zuen lesbianismoa: *“Sexualki alderantzutako emakume baten ezaugarri nagusia nolabaiteko artasun gradua da; mugimendu zakar eta indartsuek, jarrerak eta ibilerak, begirada zuzenak, ahots moldaerak eta, bereziki, gizon batekin egoteko moduak, lotsa eta ausardiari gabekoa, argi azaltzen diote ohartutako begiraleari horren guztiaren azpian anormaltasun psikikoa badagoela”*.

Definizio horretako punturik garrantzitsuena da lesbianismoa gogo gaixotasun modura tratatzen duela; emakume batengandik sozialki espero zitekeena betetzen ez zuena, hots, emakumea zen aldetik harengandik espero zenari –emazte, ama, zaintzailea- erantzuten ez zion emakume oro lesbianatzat jotzen zen. **Burutzen zuen paperagatik, jardueragatik definitzen zen lesbiana, eta ez alde emozionalagatik, egun egiten den bezala.** Lesbiana emakume maskulino gisa pentsatzeko modu estereotipatu hori indarrean dago oraindik ere gure mendebaldeko gizarteetako diskurtso sexualean.

XIX. mende bukaeran lesbianismoaz egindako ikerlanak, askotan, zoroetxe kriminaletan sartutako emakumeen arteko harremanetan oinarritzen ziren. Horrela, emakume prostituten berezko fenomeno gisa definitu izan zen lesbianismoa. Ez da beraz harrizkeoa sendaketa sistema berberak aplikatzea prostituta eta lesbianeiei: lobotomia, elektroshocka, genitalak erauztea...

Gay eta lesbianen eskubideen guztiz kontrakoak ez ziren garai hartako zenbait eskuliburutan, 1908an, honela deskribatzen zuten emakume homosexuala: *“temperamentu bizikoa, adoretua, sortzailea, nahikoa ausarta, ez oso emozionala; gustukoak ditu aire zabaleko bizitza, zientzia, politika bai eta negozioak ere; antolatzaile ona da eta ondo hartzen ditu erantzukizun handiko postuak... Gorputza guztiz du femeninoa, nahiz eta barne izaera neurri handian gizonezkoa izan”*. Gaur egun, seguruen, ez genuke asmatzen jakingo zer den lesbikoa edo maskulinoa erretratu horretan.

Hemeretzigarren mende bukaerako eta XX.aren hasierako zientzia gizon gehienek lesbianismoarekin lotzen zuten autoafirmazioa, independentzia eta nolabaiteko joera feminista. 1890.ean nahikoak ziren ezaugarri horiek emakume bati alderantzikatua zelako salaketa egiteko eta egun ere herri iruditeriaren parte dira lesbiana bat deskribatzerakoan.

Lesbianeiei buruzko herri iruditeriaren beste ezaugarrietako bat zera da, rol-jokoa -hau da, batek gizonarena eta besteak emakumearena egiten duelakoa- harreman lesbikoen atal saihestezina dela pentsatzea; sexologiaren ondorio argia da hori, emakume homosexualen artean bi mota bereizten baititu:

- “jaiotzeko alderantzikatuak”, joera maskulinoa dutenak.
- “sasilesbianak”, heterosexualak izan litezkeenak benetako alderantzikatuaren amaraunean erori izan ez balira. Garaiko emakume heterosexual afeminatuaren itxura eta jokaera zuten.
-

Mota bi horietako emakumeek elkar erakarri eta magiaz-edo kanpoko itxuraren araberrako paperak jokatuko dituzte ohean. *Butch/Femme* praktikak, hau da, beste emakume bati sartzeko eta beste emakume batek norberari sartzeko desioa, ukaezineko errealitatea dira eta eztabaida ugari sortu dituzte lesbiana feministen mugimenduaren baitan, alabaina, ezin dakizkieke lesbiana guztiei egotzi halako argudio hutsalekin, ez eta gaur eguneko estereotipo lesbikoaren oinarritzko elementua bilakatu. Lesbiana batzuek baduten eta beste batzuek ez duten ezaugarri sexuala baino ez da hori.

Sexologiaren lanak bultzaturik, hogeiko hamarkadan kanpaina zabala egin zen Britainia Handiko eskola eta unibertsitateetan emakume eta neska gazteak lesbianismotik aldenarazteko, hortaz, hartua zuten ordurako emakumeen arteko

harremanek nahikoa gaiztakeria kutsu orokorra. Kontu txarra, bazterrekoa eta madarikatua bilakatu zen lesbianismoa. Ondorioz, emakume askok ezkontza heterosexualetan bilatu zuten babesa edo euren buruekiko mesprezu eta errukia garatu zuten, alderantzikatuaren etiketa onarturik.

Historian inoiz baino gehiago, gaixotasunarekin, eromenarekin eta tragediarekin lotzen hasiko da emakumeen arteko maitasuna herri iruditeriaren baitan. Lesbianismoa patologia gisa ulertzen denean beren burua patologizatuko dute lesbiana askok, nortasun eza pairatuz, euren izate femeninoarekiko gatazkan sartuz, eta harreman modu eta balore maskulinoak bereganatuz. Lesbianek idatzitako edo protagonista lesbianak dituen XX. mendeko literaturan ohikoa da pertsonaia torturatuak, zorigaitzokoak aurkitzea, maiz suizidioa buruan darabiltenak. “Hogeietako hamarkada zoriontsuan” bizi zenaren ispilu fidela dugu hori.

Eredu sexologiko horri aurre eginez eta katolizismoaren mendetako ukazioari aurre eginez eraiki behar izan dute XX. mendeko lesbianek euren nortasuna, euren buruekin gustura egon ahal izateko. Ez da lan erraza izan, inolaz ere, eta askorentzat zaila da egun ere, horregatik da hain garrantzitsua emakumeak maite izan dituzten emakumeek azken bi mendeetan utzitako ondare eta ekarpenak jasotzea, egun eskubide osoz gutako askok zapaltzen dugun lurra berdindu baitute, haiek gabe, dudarik ez dago, zailagoa zatekeen gure ibilbidea. Haien historia ezagutzeak eta haien balioa onartzeak aukera emango digu konturatzeko posiblea eta atsegingarria dela sexualitate desberdina bizitzea.

XVIII, XIX ETA XX. MENDEETAKO LESBIANAK: SARAH SCOTT-ENGANDIK MARLENE ETA GRETARAINO.

Hamazortzigarren mende erdirako, **adiskidetasun erromantikoa** finkatutako instituzioa zen Europan eta Ipar Amerikan, bai eta literaturaren modako gaia. **Sarah Scott**-ek bere historia jasotzen zuen eleberria argitaratu zuen Londresen, arrakasta handiz, 1761ean, eta gizonez mozorroturik alde egin eta berrogeitamar urtez elkarrekin bizi izan ziren **Llangollen-eko damek** -Lady Eleanor Butler (1739-1829) eta Sarah Ponsonby (1755-1831)-, eleberri bilakaturik ikusi zuten euren benetako historia. Ezagunak dira intentsitate emozional handiko beste “adiskidetasun erromantiko” batzuk ere: **Elizabeth Carter**, Epiktetoren itzultzaile oso estimatua, eta **Catherine Talbot** izeneko beste idazle baten artekoa; **Anna Seward** poetaren eta **Honora Sneyd**-en artekoa, lehen aipatutako **Mary Wollstonecraft** eta **Fanny Blod**-en artekoa. Dudarik gabe, asko lagundu zuten garaiko pentsamoldeak onar zezan ezkontza heterosexualaz aparteko laguntasun iraunkorrak eta elkarrekiko bizitza posible zirela .

Ameriketan, XIX. Mendean, **Bostoneko ezkontza** esamoldea erabili zen oso zabalduz zegoen emakume biren arteko harreman monogamo mota bat izendatzeko. Henry Jamesek lotura emozional indartsu hori islatu zuen, neurri batean, “Bostoneko emakumeak” bere eleberrian, non emakume biek, etxeko zereginetatik libre, bestearengan jartzen baitzuten energia eta arreta. Egungo lesbiana askok, seguruen, ez lituzke harreman horiek lesbikotzat joko, ez baitugu daturik baieztatzeke sexua funtsezko elementua zenik; nolana ere, ezaugarri emozional indartsua zuten emakumeen arteko harremanak ziren, eta garaiko gainerako emakumeek ez bezala haiek

gizonengandik independenteak ziren bai etxeko kontuetan eta ekonomian, nola emozio eta sexu kontuetan ere. Dударик ez dago hori dela egun eman genezakeen lesbianismoaren definiziotik gertuen dagoena. Ez ahaztu XXI. mendeko lesbiana XX. mendeko produktua baino ez dela.

Garrantzitsua izan zen bai feminismoarentzat nola lesbianismoarentzat Europako hainbat herrialdetan XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran bizi izan zen berritze giroa. Hemeretzigarren mende osoan sexualitateari buruzko diskurtsoan nagusi izan zen pentsamendu viktoriar zorrotz, monolitiko, patriarkal eta homofobia gora behera, “*emakume berriaz*” hitz egiten zen. Emakume berriek adiskidetasun grinatsuak lotzen zituzten elkarri laguntzeko unibertsitatean, lanetan eta eguneroko bizitzan. **Haietako asko aitzindariak ziren euren lanbidetan, haien arteko lotura sareak sortu zituzten eta XX. mendean gertatu zen aldaketaren bultzatzaile izan ziren** eta Mugimendu Sufragistaren eta emakumeen eskubideen defentsarako bestelako Emakume Mugimenduetan parte hartu zuten. **Oso emakume aktiboak izan ziren eta ekarpen ukaezina egin zuten alor politiko zein sozialean:** zientzietako ia alor guztiak landu zituzten, medikuntza, antropologia edo fisika, esaterako, hala nola arteak: pintura, eskultura, literatura..., sexualitatearen gaineko teoria sortu zuten eta nahi izan zuten guztia berriro zuten.

Garai viktoriarren amaierako medikuntzak gaur egun arte hedatu den diskurtsoa sortu zuen emakume horien kontra: maskulinoak, maltzurak eta lesbiana maskulinizatuak zirela esaten zen; Erdi Aroko eta Aro Modernoko Europan sorgin eta heresetzat jotzen ziren, eta XVIII. mendeko medikuntzak histeriko eta neurotikotzat.

Emakume horietako bat izan zen **Florence Nightingale** (1820-1910), Florentzian jaioa eta bizitza osoa Londresen eman zuena, familia oneko alaba zen eta beti egin zion uko familiak harengandik espero zuen papera betetzeari. Buru belarri borrokatu zen bere bizitzaren jabe izateko, bai lanbidean bai emozioen munduan. Harreman erromantiko oso sakona izan zuen aitaren arrebarekin -Florenceren esanetan “amorante modukoak” ziren-, Britainia Handiko gobernuaren Merituen Ordena lortu zuen lehen emakumea izan zen Londresen erizaintzako eskolak sortu zituelako, eta laguntza erabatekoa eman zuen emakume modernoa posible egingo zuten baldintza sozial eta ekonomikoak sortzeko. *Nightingalek* gehien bat emakumeekin konpartitu zuen bizitza emozionala eta haiengandik atera zuen beharrezko indarra guztiz matxista eta homofobia zen XIX. mendeko gizarte britainiarrari aurre egiteko.

Fontainebleautik gertu, andereñoen barnetegi bat zuzentzen zuen **Francisca Maria Souvestre**-k, izatez Safok Mitilenen zuenaren antzeko eskola safikoa zena. Haren ikasleen artean gerora idazle ezaguna izango zen Natalie Barney aurki dezakegu.

Natalie Barney iparamerikarra mende hasieran jarri zen bizitzen Parisen eta oso pertsonaia esanguratsua izan zen lesbianismoaren irudi publikoa normaltzeko egin zuen esfortzuagatik. Gai sexualetan zituen preferentziak sekula ezkutatu ez zituen arren, Europako literatur areto nagusia gidatu zuen hirurogei urtez, bai eta edertasuna eta sensualitatea laudatzeko zirkulu satirikoa, emakume laguntzat berezia. **Maitasunaz zuen ikuspegia zabaldu zuen, XIX. mendean ezarritako gaixo kutsuaz askatuz lesbianismoa. Hark ezagutu zuen mende bukaerako Paris hartan, Belle époquek eskaini zuen lesbiana talde garrantzitsua sortzeko adina askatasun.**

Verlaine eta Baudelairen ikasle zen **Renée Vivien**-ekin osatu zuen bikotea, eta Saforen estiloko eskola sortu nahi izan zuten Parisen. Ez zuten lortu. Vivienek Saforen lanak itzuli zituen eta 1903an argitaratu ziren.

Gehien bat, kontakizun autobiografikoak eta pentsamendu eta aforismoak idatzi zituen Natalie Barneyk, hau dugu horietako bat:

“Gizonak ardura ez bazaizkit ez da haiengan pentsatzen ez dudalako, guztiz kontrara, pentsatzen dudalako baizik”.

Gari berekoa da halaber **Colette** idazlea. N. Barneyren aretoan eman zuen bere burua ezagutzera eta lau liburu idatzi zituen; liburuak senarrak sinatu zituen, haietan lantzen zituen gaiak eta pertsonaiak ez baitziren garai hartako emakume batek idatzi beharrekoak, lana argitaraturik ikusi nahi bazuen. Bost urtez egon zen Belboeuf-en markesaren emazte eta Monrny dukearen alabarekin loturik.

Garaiko giro kontserbatzailea gora behera, emakume asko agertu zen literaturan emakumeen arteko maitasun harremanen alde. XX. mende hasieran **Virginia Wolf** emakume-nortasuna birlantzen saiatu zen, betiereko feminitatea desmitifikatuz eta **Radclyffe Hall**-en alde atera zen 1928an Britainia Handian epaitu zutenean gai lesbiko argia zuen “Bakardadearen putzua” bere eleberria zantartzat jo zelako. Virginia Wolfek **Vita Sackville West** idazle, aristokrata eta bi semeren ama ezagutu zuen eta topaketa sexual laburraren ondoren adiskidantza luzea izan zuten. Bai Virginia Wolf bai Vita ezkontuta zeuden eta jendaurrean emakumezko eredu heterosexualaren arabera jantzen ziren eta horrela jokatzeko zuten.

Radclyffe Hall ordea ez zen sekula ezkondu eta inoiz ez zuen laguntasun-maitasunezko harremanik izan gizonekin, gizonzko jantziak erabiltzen zituen, emakumezko maitale ezagunak zituen, ez zegoen inoren menpe, autoak gidatzen zituen... Zeharo “anormala” eta nabarmena zen.

Garai hartan zilegia zen homosexualitateari buruzko liburuak idaztea, beti ere praktika sexual hori gaitzesteko bazen. Baina Radcliffek, guztiz bestela jokatu, gutxiengo zokoratu baten izenean hitz egin nahi izan zuen gizartearekiko elkar aditzea bideratzeko asmoz. Liburua argitaratu eta handik bi hilabetera epaitegira deitu zuten eta han adierazi zioten liburua erretiratu egingo zutela: “Pertsonaia guztiak izaki erakargarri gisa eta aldeko ikuspegitik aurkezten zirelako”. Medikuntza, sexologia eta moral viktoriarrek onar lezaketena baino gehiago zen hura.

Epaitu zutenean, buru belarri defenditu zuen liburuko protagonistaren –lesbiana maskulinoa, sexologiaren eskutik garai hartan definitutakoaren arabera- desio sexuala nabarmen agertzeko eskubidea. Liburua bahitu eta Scotland Yardeko sotoetan erre zuten, bi mila urte lehenago Saforen lanarekin gertatu bezalaxe. Lehen aldia zen emakumezko ahots bat altxatzen zela bere diskurtso sexualaren zilegitasuna aldarrikatzeko. Hirurogeitamarreko hamarkada arte gutxitan gertatuko da berriro hori XX. mendean.

Djuna Barnes idazleak, bere eleberrietako protagonista lesbianak aurreko mendearen ezaugarria zen negatibotasunetik –garai viktoriarren eta sexologiaren ondorengotza- salbatu nahi izan ez bazituen ere, euren larritasunaren subjektu aktibo bilakatu zituen. Parisen literatur aretoa gidatu zuen **Gertrude Stein**-ek protagonista lesbianak zituzten nobelak idatzi zituen eta jendaurrean defendatu zuen joera sexual hori, berea sekula agertarazi ez bazuen ere, **Marguerite Yourcenar**-en antzera, idazkari

eta maitalea zuen emakumearekin bizitza konpartitu arren, ez baitzuen sekula bere joerari buruzko lanik idatzi. Diotenez, Gertrude Steinek erabili zuen lehen aldiz inprimaturiko hizkitan egun hain hedaturik dagoen “gay” hitza, gizonezko eta emakumezko homosexual kategoria medikoetatik urruntzeko saio modura harrotasun eta errebidinkazio kutsua emanez hitzari.

Carmen de Burgos, *Colombine* (1867-1931), kazetari eta idazle espainolak homosexualitatearen jatorriari buruzko eztabaida zientifikoak eraman zituen lehen aldiz literaturaren esparrura. Garai hartan, ikusten zuen aniztasun sexuala islatu zuen *Colombinek* bere eleberrietan eta ez zuen ezkutatu nahi izan. Emakumeei eman zien arreta, bereziki garai hartako emakume espainiarrak itotzeraino estutzen zituzten arau sexualak hausten ausartu zen sektore bakarrari. Bere lanetan sexualki alternatiboa zen kolektiboaren bizitza sexuala landu zuen ageri-agerian eta bidea eman zuen Espainiako literaturan emakumezko homosexualitatea deskubri zedin. Espainiako gizarteak gaitzetsi eta bazter utzitako lesbianismoa logelako sekretu bilakatua zen eta Carmen Burgosek ahanzturatik erreskatatu zuen; haren liburuak irla isolatuak dira mundu zapaldu, estu eta sexualki uniformean.

Ezin dugu hogeietako hamarkadako emakume lesbianen zerrenda bukatu **Romaine Brooks** pintore eta idazlea aipatu gabe. Esan izan da Estatu Batuetako arte garaikideko eskuliburu guztietan nabarmentzen den hutsune handia dela bera, hortaz, baieztza liteke horietako eskuliburu bakar bat ere ez dagoela ondo dokumentaturik. Bere garaiko gizon eta emakume homosexualik ezagunenen erretratuak egin zituen. Alabaina, emakumeek gizonezkoek baino zailtasun handiagoak izan ohi dituzte, alor guztietan, beren artea onartua izan dadin; horrez gain lesbiana bada eta homosexualak erretratatzeko baditu, ahanzturara kondenaturik geldituko da.

Hollywoodeko lehen garaietan “nesketako bat” esaten zitzaien izar safikoei. Sinesgaitza ematen badu ere luzea da “nesketako bat” horien artean aipa ditzakegun emakumezko aktoreen zerrenda. Horien artean **Alla Nazimova** zinema mutuko aktore handia aipatu behar dugu, Hollywood lesbikoaren ama sortzailea, eta Emma Goldman anarkista ezagunarekin harremana izan zuena 1900ean New Yorken topo egin zutenean; Nazimovaren eskutik **Mercedes Acosta**rengana helduko gara, poeta eta hiriko bizitza sozialeko pertsonaia garrantzitsua, Acosta Hollywoodera joan zen 1931ean bere eta maitale izandakoaren **Tallulah Bankhead**-en idoloa zen **Greta Garbo** seduzitzeko asmo garbiarekin. Greta Garbok artean hemeretzi urte baino ez zuela, hogeitahiru urteko **Marlene Dietrich** iaioak konkistatu zuen, 1925ean elkarrekin filmatzen ari zirela.

Marlene Dietrichek (1901-1992) lesbianismoaren agerikotasunari lagundu zion aktore moduan zuen onespren profesionalaz baliaturik, Berlinen eta Parisen hogeie eta hogeitamarreko hamarkadetan ezaguna zen mutil/neska probokatzailaren irudia, garçonne edo “chic lesbianoa” deitutakoa agertarazi baitzuen Hollywood-en eta mundu osoan bere filmeen bitartez, geroago Liza Minelli, Julie Andrews eta Anni Lennox-ek imitatuko zuten androginia. Marlenek ez zituen sekula bere preferentzia sexualak ezkutatu eta, ezkondata zegoen arren, emakumezko amorranteak lagun zituela ibili zen mundu osotik.

Maitasun eta maitale zirkulu nahasi horren barruan hainbat aktore aurki ditzakegu, esaterako **Hatti McDaniel**, “Haizeak eraman zuena” filmean neskamearen paperagatik ezaguna, **Lizabeth Scott** eta **Patsy Kelly**, horiek denek harremanak izan

zituzten Tallulah-rekin; Mercedes Acostaren zirkuluan **Mimsey Dugget** eta **Hope Williams** aurki ditzakegu, horiek ere aktoreak, bai eta **Isadora Duncan** dantzaria. Eta horrela segi genezake.

Emakume horiek guztiek beren ekarpena egin zuten lesbianismoa praktika agerikoagoa, ezagunagoa eta onartuagoa izan zedin.

Bigarren Mundu Gerrak (1939-1945), Lehenak bezalaxe, eten bat ekarri zuen ideia horien eta bizitzeko eta maitatzeko modu berrien hedapenean. Hirurogeietako hamarkadaren bukaeran eta 70ekoaren hasieran berriro nabarmenduko da lesbianismoa, baina oraingoan mugimendu kolektibo gisa eta ez norbanako sorta modura. Garai berrietako ezaugarria erakundeak eta elkarteak dira, militantzia aktibotik errebindikazio bideari ekingo diotenak eskubide osoko herritar gisa gizarteratzeko nahiarekin.

Ezer gutxi dakigu lesbianismoa bizimodu izan zuten emakume anonimo ugarietz nahiz eta egun oraindik eraikitzen ari den nortasun lesbiko kolektiboaren sorkuntzari besteek bestelako bultzada eman XIX. eta XX. mendeetan.